



ERANSKINA

1.- 2008ko udan eta 2008-09 ikasturtean IRALE programak eskainiko dituen ikastaroen azalpena.

1.1 Udako eta irakastorduz kanpoko ikastaroak.

Funtsean bi multzo daude ikastaro hauen artean: batetik oinarrizko ikastaroak (EGA edo HE2ra arteko ikasbidea osatzen dutenak), eta bestetik goi-mailakoak (EGA edo HE2tik gorako ikasbidea garatzen dutenak).

a) Oinarrizko ikastaroak, EGA edo HE2ra arteko ikasbidea osatzen dutenak

A ikastaroa:	HElerainoko euskalduntze-ikastaroak.
E ikastaroa:	HE2 edo EGArainoko euskalduntze- edo alfabetatze-ikastaroak.
AU ikastaroa	HElerainoko euskalduntze-ikastaroak: autoikaskuntza.
EU ikastaroa	HE2 edo EGArainoko euskalduntze- edo alfabetatze-ikastaroak:autoikaskuntza.
3300 ikastaro	HElerako ikastaro berezia, txanda-aukerak agortuta dituztenentzat.
5300 ikastaro	HE2rako ikastaro berezia, txanda-aukerak agortuta dituztenentzat.
N ikastaroa	Erabateko liberazio-aukerarik ez duten ikasketari zenbaitentzako HElerako edo HE2rako ikastaroa.

b) Goi-mailako ikastaroak, EGA edo HE2tik gorako ikasbidea garatzen dutenak

H100 ikastaroa:	Hizkuntzaren zuzentasuna eta egokitasuna, hitzez eta idatziz. Euskaltzaindiaren batasun-arauak ortografian, lexikoan eta gramatikan. Irakurketa ozen zuzena, hitzen ebakera eta hitzarten doinuera zaindua.
H200 ikastaroa:	Goi-mailako hizkuntza gaitasun praktikoa (beregaintasun-maila). Eguneroko lan-esparruan euskara (ahoz zein idatziz) zuzen eta egoki erabiltzea.
H300 ikastaroa:	Itzulpen-tekniken ezagutza teorikoa eta gaitasun praktikoa. Ikastaroaren alderdi praktikoa Bigarren Hezkuntzako eskola-liburuen itzulpen-lanean oinarrituko da, batez ere.
H401 Ikastaroa:	Mintzamen-lanketa, oro har.
H402 ikastaroa:	Lagunarteko hizkera.
H403 ikastaroa:	Jendaurreko hizkera jaso.
H404 ikastaroa:	Euskal literatura.
H405 ikastaroa:	Ipuingintza. Kontalaritza.



H406 ikastaroa:	Euskal antzerkia. Kanta. Bertsolaritza. Dantza. Irratia. Euskal Jolasak.
H407 ikastaroa:	Curriculumaren euskal dimentsioa: euskal kulturaren inguruko ikastaroa
H408 ikastaroa:	Soziolinguistika.
H501 ikastaroa:	Autoikaskuntza eta on-line.
H502 ikastaroa:	Informatika euskaraz.
H503 ikastaroa:	Euskal gaiak Interneten.
F100 ikastaroa:	Giza eta gizarte-zientzien alorreko terminologia teknikoaren eta adierazpide berezien lanketa. Norberaren jakintza-alor zehatzari dagokion alfabetatze teknikoa.
F200 ikastaroa:	Zientzia-tekniken alorreko terminologia teknikoaren eta adierazpide berezien lanketa. Norberaren jakintza-alorrari dagokion alfabetatze teknikoa.
I ikastaroa:	Ikasleen gaitasun komunikatiboa helburu izanik, euskarare irakasbideak hobetzera bideratutako metodologi ikastaroak
Q ikastaroa:	Euskalkien ezagutza oinarritzkoa eta, batez ere, horien lanketa praktikoa (ahozko zein idatzizko literatura, eta barne-itzulpenen bidez). Bizkaierari berariazko lekua eskainiko zaio.
S ikastaroa:	Norberaren alorreko gaiak euskaraz, hitzez eta idatziz, irakasten hasteko indargarriak.

1.2- Irakastordu barneko ikastaroak.

Alor honetan ere bi multzo nagusi daude: batetik oinarritzko mailari dagozkion ikastaroak, eta bestetik goi-mailakoak. Oinarritzkoak, gainera, bi etapatan banaturik daude: HElerainokoak batetik, eta hortik HE2rakoak bestetik.

a) HElerainoko ikasbideak

I. urtealdia (U140)	HElerako urte osoko behe-ikastaroa.
II. urtealdia (U240)	HElerako urte osoko goi-ikastaroa.
3000 ikastaroa:	HElerako urte erdiko azken ikastaroa.

b) HEletik HE2rainoko ikasbideak

III. urtealdia (U340):	HE2rako urte osoko euskalduntze- edo alfabetatze-ikastaroa.
4000 ikastaroa:	HLEArako urte erdiko ikastaroa. H2rako urte erdiko lehen ikastaroa
5000 ikastaroa:	HE2rako urte erdiko azken euskalduntze- edo alfabetatze-ikastaroa. HLEAtik HE2rako urte erdiko azken ikastaroa.



c) Goi-mailako ikastaroak, EGA edo HE2tik gorako ikasbidea garatzen dutenak

R300 ikastaroa:	Irakasgaitasuna eta hizkuntza gaitasuna sendotzeko ikastaroa.
R400 ikastaroa:	Lanbide Heziketarako eta Batxilergorako materiala sortzeko ikastaro praktikoa.
R500 ikastaroa:	Mendebaldeko euskalkian jarduteko gaitasuna sendotzeko ikastaroa.
R600 ikastaroa:	Curriculumaren euskal dimentsioa: euskal kulturaren inguruko ikastaroa

2-. Euskaltegientzako edo ikasketa-elkarteentzako egutegia

ZER	BERANDUENIK NOIZ
1 Euskaltegi-fitxa bete/zuzendu: 2008ko udako eta 2008-2009 ikasturterako eskaintzak egitea.	Agindua argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, hilabeteko epean
2 2008ko udako eta 2008-2009 ikasturteko goi-mailako ikastaroen programa aurkeztea.	Agindua argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, hilabeteko epean
3 2008ko udako matrikula-fitxak entregatzea.	Matrikula-epea amaitu eta hurrengo 15 egun naturalean
4 2008ko udako goi-mailako ikastaroen amaieran, azalpen-txosten laburra aurkeztea.	2008-10-1etik 10era
5 2008ko udako aprobetxamendu-orriak entregatzea.	2008-09-30erarte
6 2008ko autoikaskuntzako udako aprobetxamendu-orriak entregatzea.	Hurrengo matrikula-epea hasi aurretik: 15 egun naturaleko epean
7 2008-2009 ikasturtearen lehen lauhilabeteko ikastaroen matrikula-fitxak entregatzea.	Matrikula-epea amaitu eta hurrengo 15 egun naturalean
8 2008-2009 ikasturtearen lehen lauhilabeteko goi-mailako ikastaroen amaieran, azalpen-txosten laburra aurkeztea.	2009-1-7tik 30era



9	2008-2009 ikasturtearen lehen lauhilabeteko ikastaroen aprobetxamendu-orriak entregatzea.	2009-1-7tik 30era
10	2008ko autoikaskuntzako lehen epeko aprobetxamendu-orriak entregatzea.	Hurrengo matrikula-epea hasi aurretik: 15 egun naturaleko epean
11	2008-2009 ikasturtearen bigarren eta hirugarren txandako matrikula-fitxak entregatzea.	Matrikula-epea amaitu eta hurrengo 15 egun naturalean
12	2008-2009 ikasturtearen bigarren eta hirugarren txandako aprobetxamendu-orriak entregatzea.	2009-06-30erarte
13	2008ko autoikaskuntzako bigarren epeko aprobetxamendu-orriak entregatzea.	Hurrengo matrikula-epea hasi aurretik: 15 egun naturaleko epean
14	2008-2009 ikasturtearen bigarren eta hirugarren txandako goi-mailako ikastaroen amaieran, azalpen-txosten laburra aurkeztea.	2009-07-10erarte